



SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



INTSEKTUEN HOTELA

Intsektu eta xomorroak, gure ekosistemen ezinbesteko zati garrantzitsuak dira, nahiz eta gaur egun ez diegun estima gehiegirik, gure elikagaien ekoizpenean funtzio garrantzitsuak dituzte, batez ere polinizazioan eta plagen kontrolean. Horregatik, beti da ona inguruan intsektuak izatea.

JARDUERA MOTA

Eskulana.

LEKUA

Kanpo eremua.

ZER LANTZEN DA

- Intsektuekiko jarrera positiboa.
- Elkarlana.
- Ingurumen naturalaren esplorazioa.

MATERIALA

- Material naturalak: zotzak, hostoak, makilak, egur zati handiak, belarra...
- Harriak
- Ontzia
- Ura



EDUKIA

Intsektuek gure ingurunean hainbat onura ekartzen dituzte, baratza guneeetan hainbat intsektu erakartzea komeni da, kaltegarri diren bete intsektuen kontrola emateko eta noski, polinizazioa gauzatzeko.

Eskulan honekin, intsektu ezberdinentzako deskantsu gunea duen hotel bat eraikiko dugu, bertan intsektuek eroso atsedean hartu eta ura edan dezaten, honela, hotel honen inguruko baratza zein eremuek, intsektu hauen onurak jasoko dituzte.

DESKRIBAPENA

Eskulan bat egingo dugu, intsektuentzako ura edateko hotel bat sortuko dugu.

Intsektuek ura edateko leku seguru bat behar dute, uraz bustitzen badira ezin bait dute hegan egin. Horretarako harrixoez jositako putzu bat egingo dugu, harrien gainean ezarri eta ura lasai edan dezaten. Horrez gain, harriak erakargarriagoak egiteko, kolore biziz margotuko ditugu.

